



“Hiltzen banaute, besoak hilobitik atera eta indartsuagoa izango naiz”

(Minerva Mirabal)

1960ko azaroaren 25ean, Minerva Mirabal hil zuten bere hiru ahizpekin batera. Hori dela eta, Nazio Batuen Batzar Nagusiak emakumeen, neskatilen eta neska gazteen aurka gauzatzen den indarkeriaren kontrako borrokaren sinbolotzat hartu zuen urte hori, 1999. urtea.

Denbora asko igaro den arren, azaroaren 25 bakoitzean, ahotsa goratzeko eta gure gizartean oraindik ere emakumeen aurkako indarkeria gauzatzen dela adierazteko betebeharra dugu.

Behar-beharrezkoak eta eraginkorrak badira ere, emakumeenganako indarkeriaren aurka borrokatzeko gizarte-politikek, lege-tresnek eta prebentzio- eta kontzientzia-zio-kanpainak ez dute izan lortu nahi den emaitza.

Urtez urte beren bikotekideek edo bikotekide ohiek hildako emakumeen kopurua handitu egiten denean, seme-alabak emakumeari min egiteko erabiltzen direnean, gure gazteak berdintasunez harremanetan jartzen ez direnean, eta egunero emakume edo neska baten aurkako talde-erasoei buruzko albisteak entzuten ditugunean, gogoeta egin eta galdera hau egin behar diogu geure buruari: Zertan huts egiten ari gara?

Lege-tresnak ditugu eta gure auzitegiak tresna horiek aplikatzen ari dira; berdintasun-arloko hezkuntza-politikak ditugu; biktimei laguntzeko gizarte-baliabideak ditugu; eta abokatutzatik biktimen eskubideekiko errespetua bermatzen dugu.

Hala ere, indarkeriak bere horretan dirau; eta ez hori bakarrik, kasuen kopurua eta intentsitatea handitu egin da, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Emakumeen aurkako Indarkeriaren Behatokiak emandako estatistike-tan egiazta daitekeen moduan.

Denbora luzez, borroka hori emakumeena dela pentsatu izan da, eta oraindik ere mantentzen da imaginario kolektiboan. Baina besoak ez dituzte emakumeek bakarrik jaso behar hilobitik; ez dute emakumeek bakarrik izan behar indartsuagoak, arazoak ez baitie emakumeei bakarrik eragiten.

Indarkeria gure gizartea sostengatzen duten zimendu sendoenen aurkako eraso zuzena da; izan ere, berdintasuna eta bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta psikikoa ukatzen dio gizartearen zati bati: emakumei, neskatilei eta neska gazteei.

Gizarte osoaren, hau da, gizon eta emakumeen konpromisoarekin bakarrik desagerrarazi ahal izango dugu; gizonak eta emakumeak besoak aldi berean jasota bakarrik izango dugu errealitate hori aldatzeko nahikoa indar.

Gipuzkoako abokatuok, gizon zein emakumeok, duela urte asko hasi ginen besoak elkarrekin jasotzen indarkeria horren kontra borrokatzeko, indarkeria hori jasaten duten emakumeen eta nesken eskubide eta interesen defentsa bermatuz.

Aurten ere, Gipuzkoako abokatutzak lan egiten jarraitzeko konpromisoa berretsi eta berritu du, Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna beharrezkoa izan ez dadin lortu arte.

